

EKIALDE HURBILA

Israelek PANen aurkako neurri politiko gogorrekin erantzun die atentatuei

Bi palestinar suizidak 24 hildako eragin ostean, Arafaten ordezkariak Londresko bilkurara joatea debekatu die Ariel Sharonen gobernuak

Herenegun gauean bi ekintzaile suizidak Tel Aviven 22 pertsona hil eta 100 inguru zauritu ostean, Israelek Palestinako Aginte Nazionalaren aurkako neurriak hartu ditu. Armadako helikopteroek Gaza bonbardatu zuten atzo, baina erantzun politikoa deigarriagoa izan da. PANeko ordezkariak Londresera joatea debekatu die, AEBak, Erresuma Batua, Errusia, NBE, Egipto, Saudi Arabia eta Jordaniarekin egitekoa zuten bilerara. /16



DAVID SILVERMAN / EPA

ARIEL SHARON, OSPITALEAN ZAURITUAK BISITATZEN. Ariel Sharon Israelgo lehen ministroa ospitalean izan zen atzo, Tel Aviveko bi atentatuaren zauritu ziren pertsonak bisitatzen.

IHESLARIAK

Etxera itzuli diren 11 iheslariei ongietorria egingo diete asteburuan euren jaioterrietan

Angel Alcalde dago Donostiako ekitaldian parte hartu zutenen artean, eta Poliziak hura bilatzeari ekin dio /6

ELKARRIZKETA

JOSE RAMON ETXEBARRIA
'Gernikatik Euskal Herrira' deialdiko sinatzailea



«Batasunaren ideia batzuk debekatuta daude, eta guk horiek babesteko eskubidea dugu» /8

IRAKI ERASOTZEKO ASMOA



HUSSEIN MALLA / AP

Husseinek espioitza lanetan aritzea egotzi die NBEko arma ikuskatzaileei

Irakek suntsipen handiko armak ote dituen ikertzen ari diren NBEko ikuskatzaileei «espioitza lanak» egitea leporatu die Saddam Hussein presidente irakiarra. Ikuskatzaileek salaketak ukatu dituzte, eta lanean jarraitzen dute Iraken. Bestalde, AEBek prest dute gerra irabazi ostean Irak urte eta erdiz okupatu eta erregimen berria ezartzeko plana. /18

ISTRIPUAK

Bi hildako izan dira Nafarroan, bi autok Cabanillas inguruan elkar jota /10

HILKETA

Labankadaz gizon bat hil dute Bilbon, eta ustezko erasotzailea atxilotu dute /12

CREDIT LYONNAISEN AUZIA

Trichet EBZko presidentetzatik bazter utz dezakeen epaiketa hasi da Parisen /14

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Zinema sustatzeko proiektuetarako 1.268.000 euro onartu ditu Jaurlaritzak /36

FUTBOLA

'Chengue' Morales aurrelari uruguaitarra gol gabezia arintzera etorri da Osasunara /21